

Lariz

etxebizitza

Aldacrak: Palazioa  
Ahozkoa: Láix / Léix

43° 11' 21"

2° 34' 16"

Berriz Iruditan / J.A. Ramos

*"... la casa principal Torre o Palacio rústico titulado de Lariz... radicante en jurisdicción de la Anteiglesia de Berriz, con su antusano, fronterizo y lateral, y la caseta horno, y que contiene el Placio en su planta solar, cuarenta y dos estados y veinte y seis pies, y se compone de piso principal, zaguán, cuadra y camaron, y su antusano fronterizo y lateral tiene cuarenta y nueve estados y treinta y un pies de cabida, y la caseta horno inmediata, ocho estados y veinte y ocho pies..."*

*DJE 1/6 or. (1863)*

*Palazioa* moduan ezagutzen bada ere, *Lariz* (1796) forma aurkitzen dugu jasota XVIII. mendean Bizkaiko su-erroldean. XIX. eta XX. mendeetan ere izen bera mantentzen da, 1910eko aipamena salbuespena izanik, urte horretako errolda batean *Torre Palacio de Lariz* moduan jasotzen baita. Izena errotuta dago herrian, eta inguruko etxeekin batera *Lariz* izenez ezagutzen da zonaldea. Berriztarrek *Láix* eta *Léix* formak erabiltzen dituzte ahozkotasunean.

XVI. mendeko landa-jauregia da, oraindik doretze izandakoaren itxurarik gordetzen duena. Hartz egindakoa da, eta orduan tipikoak ziren silarriak erabili ziren hormak jasotzeko, baita akabera gisa daukan erlaitza egiteko ere, ez baitu hegaldun teilaturik. Hiru solairutako etxea da, eta, fatxadetan nolabaiteko ordena mantentzen duen arren, baoek edo leihoek ez dute antolamendu garbirik, neurri eta forma

#### toponimia

*Euskal etxe-izen eta herri-izenetan ageri den iz amaiera beti lotu da jabetzarekin. Badirudi, neurri batean, egungo "-ren" atzizkiaren esangura zuela eta aurrean pertsona izen bat zuela. Tamalez holako izenak zahar-zaharrak dira eta sarritan ez dakigu zein ote zen izen hori.*

desberdinekoak baitira, XVI. mendean oraindik ohikoa zena.

Fatxadan atxikita ditu eskailerentzako kuboia eta komuna ere. Bitxiak dira leiho biribilak eta teilatuko gargola. Hala ere, aipagarriagoak dira balkoia eta armarria, biak manierismoaren adierazgarri. Balkoiak ordena baten insignia du buruan, eta XVI. amaierako kateen dekorazioa inguruetan.

Sarrera gaineko armarria ere korronte estetiko horretan sartu beharko genuke, bereziki horren marko den dekorazioa eta inskripzioa. Azken horretan goiburua hau irakur daiteke: "*QUIEN . EL CAMPO . BENCIO . I ROMPIO / LA CADENA . PONGA . CORONA . I / ALCE . PENDON . LOBOS I CALDERO*". Garaiko kalitatezko beste etxeen antzera, lau isurkiko teilatua dauka.